


MEMORIA DUTEN ESKOLAK

PROGRAMA

2023-2024 IKASTURTEA



INSTITUTO NAVARRO DE LA
MEMORIA
REN NAFARROAKO INSTITUTUA

HARREMANETARAKO

Nafarroako Memoriaren Institutua
Arrieta Kalea 12, 5. solairua. 31002 Iruña
inm@navarra.es

ARGITARATZEN DU: Gobierno de Navarra-Nafarroako Gobernua
Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentua
Memoria eta Bizikidetzaren Zuzendaritza Nagusia
Nafarroako Memoriaren Institutua

DISEINU ETA MAKETAZIOA: Horixe Diseño

INPRIMATZEN DU: Gráficas Astarriaga S.L.

LG NA 2139-2023



MEMORIA DUTEN ESKOLAK

PROGRAMA

2023-2024 IKASTURTEA

AURKIBIDEA

AURKEZPENA.....	5
1. IRAKASLEEN FORMAKUNTZA	6
2. JARDUEREN ESKAINTZA	8
3. NMI-REN ARGITALPENEN BANAKETA.....	19
4. IKASTETXEEKIKO LANKIDETZA-HITZARMENAK.....	22
5. BAKEAREN ETA BIZIKIDETZAREN ALDEKO MEMORIA DUTEN ESKOLEN SAREA	22

AURKEZPENA

Nafarroako Memoriaren Institutuaren (NMI) Memoria duten Eskolak programa zeharkako proiektu gisa jaio da eta bere helburua hezkuntza alorraren eta memoriaren aldeko politika publikoen elkargune izatea da, batez ere memoriaren tokiei, desobiratzeei eta giza eskubideen urraketa prozesuen ikerkuntzei dagokienean. Gizarte zientzien didaktikaren alderik berritzaileenarekin bat egiten du, gizarte mailako arazo esanguratsuenen konponbidea gelan bideratzea bultzatuz eta herritar demokratikoen heziketan indarra jarriz. Hori horrela izanik, ezinbestekoa da belaunaldi berriak azken hamarkadetan erreproso frankistaren inguruan historiografiak bildutako ekarpenetara hurbiltzea, zalantzan jarriz gizartean zabaldua dauden irudikapenak. Baina, ezagutza historiko hori kaxoi kurrikular batean hermetikoki itxia gera ez dadin, beharrezkoa da ikaslea prozesu historiko haien ondorioz hamarkadetan luzatu den eta ondorioak gaur ere bistaratzeko dituen itzal horretara bertaratzea, betiere pentsamendu kritiko batetik eta giza eskubideekiko errespetua oinarri duen heziketaren konpromisotik.

Programa, anbizio handikoa eta zeharkakoa, lau interesgunetan oinarrituta dago. Lehenengoa, irakasleriaren formakuntza, jarduera zientifikoa eta didaktikoa eragitea eta material eta esperientzien sorkuntza kooperatiboa bultzatzea helburu dituena. Ildo horretan, ikasturte honetako apustu nagusia Bakearen eta Bizikidetzaren aldeko Memoria duten Eskolen sarea sendotzea da; baita Memoriaren aldeko Ikastetxeen Sarea bultzatzea estatu mailan, bi sareetan ikastetxetik bertatik sortutako proiektuak garatzen ari diren etapa guztietako ikastetxeek bat egin dezaten. Bigarren, ikasleei zuzenduriko jarduera hezigarriak. Memoriarekin lotura duten toki eta pertsonen ezagutza ahalbidetzea dute helburu. Ez da eskaintza itxia, aukera ezberdinen proposamenetara irekia dago erabat. Hirugarrenak ikastetxeekin lankidetzaz hitzarmenak sinatzea du helburu, Memoria Historikoaren inguruko hezkuntza ikerketa eta berrikuntzako, prestakuntzako eta/edo pentsamendu zientifikoa zabaltzeko proiektu bateratuak bultzatzeko. Laugarrena 2024-2025 ikasturtearen hasieran Iruñean egin nahi den Memoria duen Historia Hezkuntzan I. Nazioarteko Kongresua antolatzea da.

1.2. INFORMAZIO-SAIOAK: PRATIKA EGOKIEN PROPOSAMENAK

Ikasturteko bigarren hiruhilekoan zehar, bi informazio-saio egingo dira, Memoriaren esparruan gauzatutako jardunbide egokien berri emateko. Sergio Riesco eta Francisco Hidalgo izango dira hizlariak.

Sergio Riesco Roche Bigarren Hezkuntzako irakaslea da Madrilgo La Cabrera BHIIn, eta irakasle elkartua Complutense Unibertsitatean. Gaur egun, honako hauek dira bere interesgune nagusiak: Gerra Zibilari buruzko kontakizun berri bat eraikitzea, memoriari buruzko politika publikoen hedapen didaktikoa eta erregimen diktatorialen testuinguruan lan behartua. Gainera, REDMEMORIAren koordinatzailea da. Memoria duten Eskolen Estatuko sarea da, 2022ko azaroan Iruñean egindako Hezkuntzako Memoria duen Historia Hezkuntzan Nazioarteko I. Kongresuan sortu zena.

Francisco Hidalgo Bigarren Hezkuntzako irakaslea da Los Barrioseko Sierra Luna BHIIn, Campo de Gibraltarren. Foro por la Memoria del Campo de Gibraltarreko presidentea eta La Saucedada Memoriaren Etxeko kidea. Gainera, Andaluziako Memoria Historikoaren aldeko Irakasleen Sarearen bultzatzailea da.

Saio horien helburuak hauek dira:

- Memoriak hezkuntza-ikaskuntzarako tresna gisa duen garrantziaz hausnartzea.
- Memoria historikoa ardatz egituratzaile bihurtu duten hezkuntza-esperientziak aztertzea.
- Memoria historikoko lanaren aplikazio didaktikoan interesa duten ikastetxeen artean sareko lana sustatzea.

Eskaintza hau Hezkuntza Departamentuko ILZrekin elkarlanean egiten da. Ikastaro hauetako izen ematea ILZren ohiko bideetatik egingo da.

2. JARDUEREN ESKAINTZA

2.1. IKASTETXEEN ARTEKO JARDUERAK, NMIK ANTOLATUAK

2.1.1. V. BELAUNALDI ARTEKO TOPAKETA SARTAGUDAKO MEMORIAREN PARKEAN ERAILDAKOEN SENIDEEKIN (2024KO APIRILEAN)



GOIZEKO IRTEERA. EGITARAUA:

- A. Ekitaldiaren aurkezpena, baita Nafarroako Memoriaren Leku enblematikoa den Sartagudako Memoriaren Parkearen aurkezpena ere.
- B. Taldeka eraildakoen senideekin topaketa eta elkarrizketa.
- C. Tailerrak:
 - Artistikoa: eskulturen bistak, krokisak edo marrazkiak graffitiak edo muralak egitea.
 - Literarioa: testuen egitea eta irakurketa.
 - Arte eszenikoak: ikastetxeetan aurrez prestatu dituzten lanen antzezpena.
 - Musikala.
- D. Sartagudako Memoriaren Pasealekuan bisita.
- E. Azken topaketa: marrazkien, testuen, poemen, abestien eta antzezlanen aurkezpena.

1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresaliatutako pertsonen senideekin V. topaketa hau egin aurretik, parte hartuko duten ikasleek jarduera prestatu beharko dute ikasgelan. Lehenengo hiru hilabeteetan, koordinazio-bilerak egingo dira parte hartu nahi duten ikastetxeetako irakasleekin.

Aurreko urteetako bideoak ikusteko klika egin datan edo QRa irakurri:



2023ko Apirila



2022ko Apirila



2019ko Apirila

2.1.2. GR 225: ASKATASUNAREN BOTILAK (2024KO EKAINEAN)

GR225 ibilbideko mendi martxa honen bidez Ezkaba mendiko San Kristobal kartzelatik ihes egin zuten presoan ibilbidea berregiten da bi etapetan. Lehen (Ezkaba-Olabe) eta azken etapa (Sorogain-Urepel) egiten dira.

Ibilaldien iraupena eta, kasu batzuetan, ikastetxeetarako distantziak kontuan hartuta, litekeena da jarduera ohiko eskola-ordutegiaren barruan ezin egitea.



Etapen hasieran aurkezpen txiki bat egiten da jarduera horren zergatia azalduz. Ibilaldien zehar ihesaldiari eta natura inguruari buruzko azalpenak ematen dira. Etapak amaitzean, memoria-ekitaldi xume bat egiten da, ikasleek parte hartuta, eta, bertan, aurrez ikasgelan egin dituzten lanak aurkezten dira. Esperientzia gauzatu aurretik, ikastetxean diziplinarteko lan bat burutuko da. Planteatzen diren datak problematikoak izan daitezkeenez ikasturtearen amaiera hurbil dagoelako, irakasleekin bilera bat egingo da behar besteko aurrerapenez, jarduera prestatu eta data egokiak adostu ahal izateko.

Aurreko urteetako bideoak ikusteko klika egin datan edo QRa irakurri:



2023ko Maitaza



2022ko Ekaina



2019ko Ekaina



2018ko Ekaina

2.1.3. IHESA HANDIA. MENDI-ESCAPE

Proiektuak 1938ko maiatzaren 22an San Kristobalگو penaletik Europan egin zen ihes handienari egiten dio erreferentzia. Helburua ikasleen pentsamendu kritikoa garatzea da, jasotako egiak zalantzan jartzera edo gure historiaren iraganari buruz hausnartzera ohituta ez dagoena, bai eta gerra zibilean eta diktadura frankistan Nafarroan izan ziren biktimak aintzat hartzen laguntzea ere. Ikastetxe arteko eta diziplinarteko hezkuntza-proiektua da, proiektuetan oinarritutako elkarlaneko ikaskuntzan oinarritutako metodologia aktiboak eta memoria historikoaren berreskurapena uztartzen dituen.

Zentroetan egiten diren jardueren ondoren, apirilean jarduera bateratu bat egiten da Ezkaba mendian: *mendi-escape*.

Parte hartu nahi duten ikastetxeek INMrekin (inm@navarra.es) harremanetan jarriko dira urriaren amaieran bilera bat hitzartzeko.

2.1.4. DESOBIRATZEETARA BISITAK



Bisita hauek desagertuen minera hurbiltzeko, lekuko, senitartekoen edo memoria historikoa lantzen duten elkarten testigantzak entzuteko eta desobiratze lanean ari diren lantaldearen eskutik azalpen zientifikoak ezagutzeko aukera ematen digute.

Jarduera honen ezaugarriak direla eta, denbora gutxiko tarteaz jartzen gara ikastetxearekin harremanetan. Horrenbestez, ikastetxearen ardura da ikasle parte hartzaileen antolaketa eta bisitarako ezinbestekoa den motibazioa aurrez landuta eta aurreikusita izatea.

2016an Memoria duten Eskolak programa ezarri zenetik, hainbat eskola-taldek hartu dute parte Burutain (2017ko apirila), Urdaitz (2018ko martxoa), Leranotz (2018ko maiatza), Artaiz (2018ko abuztua), Urbikain-Etxalatz (2019ko iraila), Iruzkun (2019ko urria), Elkarte (2021eko urria) edo Berriozar eta Antsoaingoa (2022ko urria) deshobiratzeetan.

QRak *Memoria Historikoa eta Hezkuntza* blogera bidaltzen gaitu, non esperientzia horiek deskribatzen diren eta ikasleen bisiten irudiak eta bideoak ikus daitezkeen. [Hemendik](#) ere sar zaitezke.



2.1.5. ANTZERKI LANAK. MEMORIA DUTEN ANTZEZLANAK



Kasu batzuetan, Gyarre Antzokiaren programazioaren barruko obrak dira, eta Nafarroako Memoriaren Institutuak laguntzen ditu, eskola-saioekin. Beste batzuetan, antzezenak ikastetxeetara bertara eramaten dira espazio egoki bat izanez gero, edo kudeaketa publikoko eszenatokietara (kultur etxeak, Civivox, udal-antzokiak), non hurbileko ikastetxeetako ikasleak bertaratzen diren.

Programaren lehen urteetan, INMk, Gyarre Antzokiarekin elkarlanean, hainbat obra programatu zituen, hala nola *Donde el bosque se espesa*, *Barro*, edo *Fuego*. 2021-2022 ikasturtean, INMk eskaintza askoz zabalagoa egin zuen, ikastetxeetako eta Gyarre Antzokiko emanaldiak konbinatuz. Ikasturte honetan eskema hori errepikatu da, eta aparteko liburuxka batean jaso da, *Memoria duten Antzerkia*, Memoria duten Eskolak programan parte hartzen duten ikastetxeen artean banatuko dena.

QRak programaren web orrira bidaltzen du. [Hemendik](#) ere sar zaitezke.



2.2. IKASTETXEAN EGITEKO JARDUERAK

2.2.1. BIKTIMA HEZITZAILEEN PROGRAMA: ERREPRESIO FRANKISTAREN BIKTIMEKIN TOPAKETAK IKASTETXEETAN

Biktima horietako batzuk eta beren testigantzak INMren *OROIBIDEA, camino de Memoria* bilatzailean azaltzen dira eta [hemendik](#) edo QR irakurriz eskura ditzakezu.



2.2.2. MEMORIA HISTORIKOKO ELKARTEEKIN ETA ADITUEKIN HITZALDIK, ETA DOKUMENTALEN PROIEKZIOA:

A. DOKUMENTALEN PROIEKZIOAK:

- *Gurserako bidea*. Nafarroako Gobernua.
- *Desafectos. Francoren esklaboak Pirinioetan*. Memoriaren Bideak.
- *Dena kendu ziguten*. Patxi Egilaz.
- *Ezkaba*. Iñaki Alforja.

- *Zerrauts ogia*. Patxi Egilaz. (1951ko grebari buruzkoa).
- *Floreccica, Josefina Lambertoren historia*. Virginia Senosiain eta Juan Luis Napal.
- *Francoren bunkerrak*. Aritz Gorostiaga.
- *Gatibuen Hiria*. Aritz Gorostiaga.



B. HITZALDIAK:

- Fermín Ezkieta: “Ezka bako ihesa”.
- Nafarroako Memoria Historikoaren Fondo Dokumentala: “Errepresioa Nafarroan. Balantzea”.
- Memoriaren Bideak: “Frankismoren esklabuak”.
- Txinparta-Fuerte de San Cristóbal: “San Kristobal Gotorlekua eta Botilen Hilerria”.
- Aranzadi Zientzia Elkarteak: “Desobiratzeak”.
- AFFNA36NAFSE, Bideko Mitxingorria, Asociación Pueblo de las Viudas, Txinparta, Areka...: “Elkarteen lana”.
- Raymond Villalba (Terres de Memoire(s) et de Luttes): “Gurs: kontzentrazio esparrua”
- Eduardo Arteta, Nico Zuazua eta Carlos Zuza: “Francoren bunkerrak”.
- Juan Carlos García Funes: “Desafektuak. Frankismo garaiko lan behartua”
- Uriz Pi ahizpak Elkarteak: “Aitzindariak. Josefa eta Elisa Úriz Pi ahizpen historia eta konpromisoa”
- NASERTIC: “Nafarroako Gobernuaren ADN bankua”

2.2.3. ERAKUSKETEN PROGRAMAZIOA ETA ERAKUSKETETARA BISITA

Nafarroako Memoriaren Institutuak hainbat erakusketa ditu ikastetxeetan ezartzeko. Aldez aurretik, inm@navarra.es helbide elektronikoaren bidez erreserba egin behar da:

Horietako gehienek, gainera, bertsio birtuala dute, gida honetako 2.4.1. atalean aipatzen dena.

- “Ezkaba 1938-2018” (ikastetxean erakusteko formatu txikian dago, *roll-up* formatuan).
- “Lur Azpian”. Desobiratze goiztiarrak Nafarroan.
- “Uriz Pi ahizpak”. Aitzindariak. Josefa eta Elisa Úriz Pi ahizpen historia eta konpromisoa.
- “T4 Aktion. Eutanasia nazi programa”.
- “Hormigoizko Mugak”. Atlantikoko Harresiaren eta Pirinioen Gotortzearen arteko bidaia (ikastetxeetan, *roll-up* formatuan).
- “José Alfaro. Erbestea eta duintasuna”. Tafallar errepublikar honen argazkiak Frantzia erbestera zenean.
- “Gerardo Lizarraga”. Frantziako kontzentrazio-eremuetan egindako marrazkiak.
- “Emakumeak eta Memoria”. 1936ko udako kolpe miliarraren ondorioz Nafarroan errepresaliatutako emakumeen memoria. Ikusgai egongo da NUPen, eta ondoren ikastetxetara eraman ahal izango da.
- Zenbait ikastetxek Memoria duten Eskolak programan garatutako proiektuen esparruan egindako erakusketak. Nabarmentzekoak dira “Emakumeak frankismoan” eta “Denborarik

Gabe” erakusketak, biak Mendillorri BHIkoak, edo “Julián Oscoz Íñigo: una vida en la memoria” Lizarralde BHIkoa.



Gainera, urriaren bigarren hamabostaldira arte, Iruñeko Planetarioan ikus daiteke “Las Sinsombrero”, INMren “Erbestea” eta “Emakumea eta Memoria” programen barruan dagoen erakusketa, 27ko Belaunaldia osatu zuten emakumeei buruzkoa. Erakusketa honek bertsiio birtuala, (ikus 2.4.1 atala), gida didaktikoa eta jardueren koadernoak baditu, eta [hemen](#) klik eginez edo QRa irakurriz deskargatu daitezke.



2.2.4. MEMORIA HISTORIKOA ETA DEMOKRATIKOAREN TAILERRAK. NAFSE 36



¡hablemos!
hitz egin dezagun!

NAFSE 36 Nafarroako Fusilatuen Senitartekoen Elkarteak proposatzen du tailer hau, Nafarroako memoria historikoarekin zerikusia duten edukien eta testigantzen bidez belaunaldien arteko topagunea eta denbora sortzeko beharretik sortzen dena. Bere helburu nagusia giza eskubideen transmisioa eta horien urraketa ez errepikatzeko ideia da, Espainian 1936an eta ondorengo diktadura frankistan gertatutakoaren adibidearekin eta eztabaida global eta egungoekin, hala nola migrazioena.

Hezkuntza formalaren (bigarren hezkuntza eta goi-hezkuntza) eta ez-formalaren barruan kokatzen da, bi orduko iraupenarekin, eta 4 bideo sekuentziaturen inguruan biratzen da: *Testuinguru historikoa*, *Horrorea*, *Memoria* eta *Erbestea eta ikasitakoa*. Tartekatuta, eztabaidak eta jarduerak proposatzen dira, metodologia aktiboak erabiliz. Azkenik, eskuzabaltasunez testigantza eman duten pertsona batzuei mezuren bat bidaltzeko aukerarekin amaitzen da, tailerra liburu bidaiariaren bidez egin ahal izateko.

2.2.5. MEMORIA DUEN DANTZA TAILLERRAK

2.2.5.1. BASOTIK ITSASORA. DANTZAZ KONPAINIA

Proposamen honekin, Dantzaz Konpainiak jarduera bat planteatzen digu, non ikasleak ikusle soil izatetik dantza ikuskizunaren protagonista izatera pasako diren. Oraingo honetan, baso iluna da guztia estaltzen duen espazio magiko eta, aldi berean, beldurgarria. Historia garaikidean erreferentzia espazio bat bete nahi izan duena bezalakoa. Errefuxiatu-esparrua, kontzentrazio-esparrua. Gurs, milaka pertsona hartu eta bildu zituen esparrua, ehunka hil ziren esparrua, gugandik oso gertu dagoen eta historian hain urrun ez dagoen esparrua, gure abiapuntua izango da milaka eta milaka pertsonak gerren eta pobrezia-ondorioz jasan behar duten egoeraz hausnartzeko eta mezu poetiko bat zabaltzeko. Gurs iragana eta oraina lotzen dituen zubia da.

Jarduera hau aurrera eramateko bi formatu ezberdin aurkezten dizkigu, biak *Basotik basora* dokumentalaren emanaldian oinarrituak. Dokumentala ordubetekoa da eta gela batean zein espazio zabalago batean proiektatu daiteke.

- A.** Talde bati zuzendutako 90 minutuko hausnarketa dantzatua (gela). Lehenengo zatian, dokumentalari eta dantza-piezari buruzko irudiak eta hausnarketak bilduko dira, eta tailer batean, hausnarketak mugimendu partekatu bihurtuko ditugu taldean.
- B.** Koreografia-sorkuntza talde batekin (gela). Bost lanordu ditu, astelehenetik ostiralera, zentroan bertan egindako sormen koreografikoaren azken aurkezpenarekin. Joan den ikasturtean, Barañaingo Alaitz BHIko arte eszenikoen batxilergoko ikasleek esperientzia hau burutu zuten eta emaitza Sartagudako belaunaldien arteko topaketan antzestu zen. Hemen ikus dezakezu.



2.2.5.2. NUN ZIRA? DAB KONPAINIA

Nun Zira?-k gizaki izateaz hitz egiten digu, partekatzeaz, izatearen existentzia balorean jartzeaz eta maite ditugun pertsonekin elkar bizitza bat sortzeaz. Ikuslea ikuspuntu beliko batean kokatuz, bikote bat osatzen duten bi dantzariak, abesbatzaren babesean, momentu intimoenetatik giza biziraupenaren borrokarik krudelenerarte bidai bat sortuko dute, non maitasuna izango den tramaren heldulekua. Egoera traumatiko bat bizi ondoren, NORTASUNA berreraiki behar da eta ibilbide horretan datza *Nun Zira?* pieza. Interpretetek soinean daramaten armadura, biktimen islada da eta hauen bi aspektu azpimarratu nahi ditu, batetik borrokaren indarra eta bestetik, esperantzaz beteriko arima.

Ikuskizuna, *Nun Zira?* piezarako sortutako unibertsoa bertatik bertara ezagutzeko tailer batekin osatzen da. DAB konpainiako dantzariak ikastetxean emango dute tailerra, eta, ondoren, ikuskizunaz gozatu ahal izango da, praktikatutakoa eszenan ikusiz. Ekintza honen bidez dantza ikasgeletara gerturatzea du helburu, memoria historikoa ezagutarazten eta balorean jartzen.



2.2.6. AGIT-PROP ETA GRAFITI TAILERRA. TAXIO ARDANAZ

II. Errepublikan eta Espainiako gerra zibilean egindako kartelen iruditeria grafikoa eta soziala tailer baten abiapuntua da. Tailer horretan, hitzetatik harago ideia bat zabaltzeko beste modu batzuk ezagutzera gonbidatzen dira ikasleak, eta tresna berriak eskaintzen zaizkie adierazpen plastikorako.

Helburuak

- Gure memoria hurbila lantzeko prestakuntza-baliabideak zabaltzea, kontakizun historikoaren eta haren eraikuntzaren inguruko begirada kritikoa garatuz.
- Arteak eta kulturak gatazka-egoera baten aurrean adierazpen pertsonal eta kolektiborako duten gaitasuna aintzat hartzea.

Tailerraren garapena

- Azalpen teorikoa eta eztabaida kolektiboa (60 minutu).
Artxiboko materiala orainetik behatzea: zer elementu sinbolikok hartzen dute parte gure ikusizko kulturaren? Zeintzuk dira gaur egun aipatu nahi ditugun kezka? Nola egin dezakegu?
- B. Paper gaineko spray-mural handi bat egitea (120 minutu).
Bost laguneko taldeetan hitz egindakoa partekatu ondoren, talde bakoitzak kezka bat bilatzen du, *stencil* teknika erabiliz sinbolikoki irudikatu nahi dena.

2.2.7. MEMORIA DUTEN IRUDIAK



Nafarroako Memoriaren Institutua 2019ko apiriletik ari da *Memoria duten Irudiak* zikloa programatzen. Memoria historikoari buruzko dokumentalen ziklo bat da, publiko orokorrari zuzendua. Ziklo hauek hainbat hamarkadatan ezkutuan egon den indarkeria frankistaren begirada kritikoa proposatzen dute; arteetatik proiektatutako begirada kritikoa, kasu honetan zinematografiatik. Apirilean egingo den 2024ko edizioan, publikoarentzako arratsaldeko emanaldiez gain, ikastetxeei zuzendutako goizeko saioak ere eskainiko dira zuzendarien partaidetzarekin. Saio horiek Golem Baiona zinemetan zein zentroetan bertan egin ahal izango dira.

QRak programaren webgunera bidaltzen du. [Hemen](#) klik eginez ere sar zaitezke.



2.2.8. “1978KO SANFERMINAK” UNITATE DIDAKTIKOA

“Sanfermines 78 gogoan” memoria elkarteak 1978ko uztailaren 8ko gertakari tragikoen inguruko unitate didaktikoa prestatu du. Har dezakezu esteka honetan: “1978ko Sanferminak” UD.



2.3. MEMORIA DUTEN IRTEERAK

2.3.1. NAFARROAKO MEMORIA HISTORIKOAREN TOKIETARA BISITAK

Adituek, eraildakoen ahaideek eta iragan traumatiko hori bizi izan ziren bizilagunek parte hartuko dute. [Hemen](#) Nafarroako Memoriaren Lekuei buruzko bideoak ikus daitezke.



- A. Sartagudako Memoriaren Parkea (Pueblo de las Viudas Elkartea eta NAFSE-36).
- B. Hiru Gurutzen Gaina / Etxauri/ Erreniegako Mendilerroko Hilobiak (Zurbau eta Erreniegako Mendilerroko Hilobiak kolektiboak).
- C. Loitiko Gaineko Hilobiak / Eloko Teileriako Ilobia (Teileriako Ahaztuak).
- D. Igariko Barrakoia eta Bidankozeko gaineko oroitarria / Erronkariko Eskola (Memoriaren Bideak).
- E. Iruñea. Gatibuen Hiria. Atxiloketa zentroak Iruñean, 1936-1945 (NMI).
- F. Hormigoizko Mugen ibilbideak (NMI).



Gatibuen Hiria



Bunker baten errekupezioa



2.3.2. BESTE ELKARGOETAKO MEMORIAREN TOKIETARA BISITAK

- A. Gernika eta Burdinaren Gerrikoa. Gernikako Bakearen Museoa:
- B. Ebroko frontea.
- C. Huesca. Orwell ibilbideak.
- D. Gurs-ko kontzentrazio-esparrua (Terres de Mémoires et de Luttés).
- E. Bustarviejoko barrakoiak (Madrilgo Komunitatea). Frankismoaren esklaboen lana.

2.4. ABIAN DAUDEN PROGRAMAK ETA PROIEKTUAK

2.4.1. HEZKUNTZA BALIABIDEAK

- A. **Baliabideen bloga:** Memoria Historikoa eta Hezkuntza. Sartu blogean [hemen](#).



Baliabideen bloga

- B. **Memoria duen Historia Hezkuntzan Nazioarteko I. Kongresua.** Kongresuaren webgunean sortutako material guztia jasotzen da: komunikazioak, aktak, saioren bideoak, liburu digitala, etab. [Hemen](#) klik eginez sar zaitezke.



Kongresuaren webgunea

C. Oroibidea, camino de memoria. Nafarroako iragan traumatikoari buruzko ahozko memoriaren artxiboa. Ahozko testigantzak dituzten ikaskuntza-ingurune birtualak. Errepresioaren geobiografiak Nafarroan. Sartu Oroibidean [hemen](#).



Oroibidea

D. Erakusketa birtualen programa Interneten. Erakusketa birtualetarako sarbidea [hemen](#).

- Ezkaba 1938-2918.
- Gerardo Lizarraga, artista erbestean.
- Uriz Pi ahizpak.
- Hormigoizko mugak.
- Lur Azpian. Desobiratzte goiztiarrak Nafarroan.
- Objekzioa eta intsumisioaren Memoria Nafarroan.
- Gatibuen Hiria. Atxiloketa zentroak Iruñean, 1936-1945 (Oroibidean).
- MUMEN. Emakumea eta Memoria Nafarroan.
- Las Sinsombrero.




Erakusketa birtualak

E. NUPeko Nafarroko Oroimen Historikoari buruzko Dokumentazio Fondoa, errepresioaren mapei buruzko atal berri batekin. Sarbidea [hemen](#).



NUPeko NOHDF

F. Nafarroako Hobien Mapa. Sarbidea [hemen](#).



Nafarroako hobien mapa

2.4.2. ELKARTRUKEAK

Eskola trukeak egin daitezke Oloron Sainte Marierekin Gurseko zelaira joateko. Baita beste erkidego batzuekin ere, hala nola Madrilekin (Bustarviejoko penala) edo Andaluziarekin (Casa de la Memoria La Saucedá). Nolanahi ere, Nafarroako Memoriaren Institutuarekin harremanetan jar zaitezke beste truke batzuk antolatuzeko.

3. NMI-REN ARGITALPENEN BANAKETA

3.1. MEMORIA DUTEN ESKOLAK LIBURUAUEN BANATZEA



2021-2022 ikasturtearen amaieran, Memoria duten Eskolak liburua aurkeztu zen, Nafarroako Memoriaren Institutuak hezkuntza-programa horri buruz argitaratu zuena. Liburuak, programaren aurkezpen sakona egiteaz gain, hezkuntza-etapa desberdinetako ikastetxeetan garatutako esperientzia didaktikoak ezagutarazteko aukera ematen du, bai eta Maisu-Maistren Graduko edo Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Prestakuntzako Masterreko ikasleek beren ikasketa-amaierako lanetan egindako proposamenak ere. Horrek guztiak hausnarketarako esparru bat eta proposamen berriak diseinatzeko ereduak ekarri nahi ditu. Beraz, ez dira errezeta edo produktu itxiak, baizik eta inspirazio gisa balio izatea eta ondoren ikastetxe bakoitzaren errealitateari eta hezkuntza-proiektuari egokitutako lan-bideak iradokitzea. Irailaren hasieran Nafarroako ikastetxe guztietan banatu da eta *Memoria Historikoa eta Hezkuntza*

blogaren sarrera honetan dago eskuragarri, PDF formatuan. Paperezko aleren batean interesa duenak INMrekin jar daiteke harremanetan.



Liburua PDF
formatuan

3.2. LIBERTADEN MEMORIA UNITATE DIDAKTIKOA



Gerra zibila, 1936ko kolpearen ondorengo indarkeria eta II. Mundu Gerrari buruzko *Libertaden* Memoria unitate didaktikoaren aurkezpena eta banatzea. Iturruma BHIko irakasleak Oskia Ramirez eta Cristina Palaciosek egindakoa. 2018an antzeztu zen *Donde el bosque se espesa* antzerki lanaren inguruan egin zuten lanetik abiatu da. Zenbait unitate didaktiko eta material kaxa sortu dira era ikastetxeen eskura jarri dira.


Eskaerak: inm@navarra.es

3.3. AMONARENEAN KEA UNITATE DIDAKTIKOA BANATZEA



Gerra Zibilean eta frankismoan Lehen Hezkuntzan errepresaliatuen oroimena ezagutu eta hari ahotsa emateko. Irantzu Senosiainek eta Eneko Gamarrak egina. Ane Ibañez Elosuak ilustratua eta Dani Martirena Indartek idatzitako izenburu bereko ipuinean oinarritua dago. Hainbat ale argitaratu dira, eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetara bidaliko dira. Pasa den ikasturtean Nafarroako Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztietara unitatearen aleak bidali ziren. Eskaerak: inm@navarra.es

3.4. GOSEA GERRAONDOAN TUTERAKO ERRIBERAN (1939-1951) PROPOSAMEN DIDAKTIKOA



Proposamen didaktiko honek errepresio frankistaren memoria eta autarkia eta gosea herritarren kontrol politikorako modu gisa erabiltzea bezalako gaien tratamendua batu nahi izan du ikuspegi didaktiko berritzailearekin, ikasleek iturri ofizialekin eta, bereziki, ahozko iturriekin egindako lan aktiboan oinarrituta. Egilea Francisco Santos Escribano Valle del Ebro BHIko irakaslea da. 2023-2024 ikasturtearen hasieran, aleak banatu dira bigarren hezkuntzako ikastetxeetan. Eskaerak: inm@navarra.es

3.5. MEMORIA DUEN HISTORIA HEZKUNTZAN. NAZIOARTEKO I KONGRESUA

2022ko azaroaren 10etik 12ra bitartean, Memoria duen Historia Hezkuntzan Nazioarteko I. Kongresua egin zen Iruñean. Nafarroako Gobernuak antolatu zuen, Nafarroako Memoriaren Institutuaren eta Hezkuntza Departamentuko Antolamendu, Formakuntza eta Kalitate Zerbitzuaren bitartez, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko Giza, Gizarte eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak.



1936ko kolpe militarren, gerra eta diktadura frankistaren eta Trantsizioaren ondoren piztutako indarkeriaren oroimenaren inguruan irakaskuntza-proiektuak edo ikastetxe-proiektuak partekatu nahi izan zituzten hezkuntza-etapa guztietako irakasleei zuzendu zitzaien biltzarra. Proiektu horiek zeharkakoak dira ikastetxe askotan, eta hainbat arlotako irakasleak inplikatzeko dituzte. Irakasle hauek memoriarekin egiten den hezkuntza-lana ez da Historiako irakasleentzat bakarrik, hezkuntza-komunitate osoarentzat ere badela uste dute. Proiektu horiek, gainera, berrikuntza didaktikoa bultzatzen dute, historikoki pentsatzen, elkarriketan ikasten, irakasgaien araberako diziplina-banaketaren kortseak gainditzen eta egungo gizarte-arazoak ikasgeletan txertatzen laguntzen baitute.

Erralatoretzan eta ponentzietan parte hartu zuten pertsonak egindako testuak biltzen ditu liburu honek, bakoitzak bere hitzaldian oinarrituta. Bolumena sei kapitulu handitan egituratzen da, kongresua antolatu zen mahai bakoitzari dagozkionak. Kapitulu bakoitzaren amaieran, mahaira aurkeztutako komunikazioen zerrenda eranstean da, QR kode batekin, argitalpen digitalera sartzeko aukera ematen duena. Azken kapituluak kongresuaren ondorioak aurkezten dira, amaieraren aurreko azken saioan aurkeztuak. Gainera, edizio digital zabalagoa du, komunikazio guztiak jasotzen dituena. Gainera, Kongresuaren webgunean, bideo edo poster gisa aurkeztutako material osagarria ere eskura daiteke.



Liburu digitala

4. LANKIDETZA HITZARMENAK IKASTEETXEKIN

Nafarroako Memoriaren Institutuak, Memoria duten Eskolak programan, ikastetxeekin lankidetzahitzarmenak sinatzea du helburu, Memoria Historikoaren inguruko ikerketa eta berrikuntzako, prestakuntzako eta/edo pentsamendu zientifikoa zabaltzeko proiektu bateratuak bultzatzeko. Tuterako Valle del Ebro BHI, Iruñeko Navarro Villoslada eta Mendillorri BH, Elizondoko LHI, Berako Toki Ona BHI, Lekartoz BHI eta Doneztebeko Mendaur BHIekin hitzarmenak sinatu ditu.

Ikastetxeren batek lankidetzahitzarmen bat sinatu nahi badu, helbide elektronikoa honetan jar daiteke harremanetan: inm@navarra.es

5. BAKEAREN ETA BIZIKIDETZAREN ALDEKO MEMORIA DUTEN ESKOLEN SAREAREN SORTZEA

Hezkuntzako zuzendari nagusiaren ekainaren 23ko 263/2021 Ebazpenaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Bakearen eta Bizikidetzaren aldeko Memoria duten Eskolen Sarea sortu zen. Urtero, maiatzean, deialdi bat argitaratzen da hurrengo ikasturtean sarean parte hartzeko. Bertan zehazten dira, besteak beste, parte hartu ahal izateko baldintzak, ikastetxeak hartzen dituen konpromisoak, eskaera-primakia eta aurkeztu beharreko proiektuaren eta azken memoriaren ezaugarriak.

Hemen duzu Hezkuntza Sailaren laguntzen deialdia.



Era berean, 2023ko azaroan Iruñean egindako Memoria duen Historia Hezkuntzan Nazioarteko I. Kongresuan hartutako konpromisoaren ondorioz, irakasle eta ikastetxeetarako REDMEMORIA postazerrenda sortu da, Madrilgo La Cabrera BHIko irakasle eta kongresuko batzorde antolatzaileko kide Sergio Riescok koordinatuta.

Inskripzioa hemen klik eginez edo QRa irakurriz egin daiteke.

